

Ikasleonen datuak multinazionalen esku? UPV/EHUren zerbitzuen pribatizazioari ez!

LAB sindikatua eta Ernai gazte erakundea EHUKo Gizarte kontseiluaren ekainaren 29ko bilkuraren aurrean elkarretaratu gara **EHUKo Zuzendaritza taldeak inposatu nahi duen neurri berria salatzen**. Izan ere, **ikasleonen posta elektronikoaren kontuak Microsoft Office 365-era migratu nahi ditu, zerbitzu hau pribatizatuz eta ikasleonen pribatutasuna kolokan jarritz.**

Aspaldidanik gauzatzen ari da azpikontratazioa EHUKo hainbat alorretan, Informazio eta Komunikazio Teknologiaei (IKT) lotutako zerbitzuetan barne. Duela gutxi **jakin izan dugu 2022-23 ikasturtean ikasle guztiek O365 kontua derrigorrean izateko azken moldaketa teknikoak egiten ari direla, uztailaren 18an irekiko den matrikulazio-kanpainan bertan automatikoki gauzatzeko.**

Honen aurrean honako hau adierazi nahi dugu Ernai eta LABetik:

- **EHUKo zerbitzuen pribatizazioa salatzen dugu. Sistema publikoaren desegite progresiboaren beste pauso bat da, unibertsitate publikoa ahulduz transnazional baten onurako. EHUn baditugu informatikan adituak diren langileak eta baliabideak IKTak EHUn bertan kudeatzeko eta, nahikoak ez direnean, inbertsio handiagoa egin behar da baliabide propioetan, eta ez kontrakoak: enpresa pribatueta diru publikoa bideratzea.**
- **Oso larria da ikasleonen datuak multinazional baten esku jartzea. Pribatutasuna gordetzeko bermeak daudela esango badute ere, ikasleonen datuen pribatutasuna kolokan egongo litzateke, etorkizunean informazio pertsonala non buka daitekeen ezin ziurtatu.** Ikasleonen ondoren, EHUKo langileonen kontuen migratzea etorriko litzateke, baita EHUKo plataformetan dagoen lan-kudeaketari eta ikerketari lotutako informazioa Microsoft-en zerbitzarietara pasatzea ere.
- **Erabaki honek ikasleonen eta langileonen Microsoft-ekiko menpekotasun teknologikoa nabarmenki areagotuko luke eta atzera buelta ia ezinezkoa bilakatuko litzateke.**
- **EHUKo komunitate osoan eragiten duen erabaki hau ezkutuan gauzatzen ari dira, informazio ematea eta eztabaida ekidinez.** Posta elektronikoak O365-era migratzean, ikasleriaren erabakitzeko eskubidea urratzen ari da. Parte-hartzerako jarrera irekiaren irudia eman nahi badute ere, **ez dago gutxieneko parte-hartze prozesurik, ez ikasleekin ezta langileekin ere.**
- **Multinazional eta baliabide digital pribatuaren menpekotasunaren aurrean, alternatiba badago, burujabetza teknologikoaren bidean zerbitzu publikoen indartzean eta software librearen erabilera orokortuan oinarrituta.**

Horregatik, **Ernai gazte erakundeak eta LAB sindikatuak publikoki salatu nahi dugu EHUKo zerbitzuen pribatizazio egitasmo hau eta EHUKo Zuzendaritza taldeari atzera egitea exijitzen diogu, O365 proiektua alde batera utziz eta unibertsitateko komunitatea osoarekin eztabaida prozesu bat martxan jarritz, etorkizuneko erronkei aurre egiteko norabidea denon artean zehazteko.**

Era berean, EHUKo komunitate osoari (ikasle zein langile) baita, era orokorrean, euskal gizarteari ere erabaki honen kontra agertzerak egin behar dira.

EHUKo zerbitzuen pribatizazioari ez!

Ez jarri EHUKo ikasle zein langileonen datuak enpresa pribatuaren esku!